| | |
|---|---|
| **INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA (05-10-26)** | **ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE (16-11-05)** |
| LEHENDAKARIORDEA<br>FERNANDO BURZAKO, Ingurumen Zinegotzia | VICEPRESIDENTE<br>FERNANDO BURZAKO, Concejal de Medio Ambiente |
| IDAZKARIA:<br>ARANTZA CABEZA and. | SECRETARIA:<br>Dª. ARANTZA CABEZA |
| INGURUMEN TEKNIKARIA:<br>JOSU ATEKA jn. | TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:<br>D. JOSU ATEKA |
| INGURUMEN AHOLKULARIA:<br>JULEN REKONDO jn. (Ingurune) | CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:<br>D. JULEN REKONDO (Ingurune) |
| BERTARATUAK: | ASISTENTES: |
| DIMAS RAMOS jn.<br>BEGOÑA and. (Ekologistak Martxan)<br>LINO ASTOBIETA jn. (Ekologistak Martxan)<br>PATXI DIAZ jn.(Itinerarios Ecológicos))<br>CARMEN ESTRADA and. (Itxas Argia)<br>KOLDO NABASKUES jn. (Urkoa, Kontsumitzaileen Elkartea)<br>PEDRO BARRENETXEA jn. (Aixerrota Institutuko Irakaslea)<br>JON GALLASTEGI jn. (Fadura Institutoa)<br>JOSÉ ALMEIDA jn. (Getxo Empresarial y Comercial). | D. DIMAS RAMOS<br>Dª BEGOÑA (Ekologistak Martxan)<br>D. LINO ASTOBIETA (Ekologistak Martxan)<br>D. PATXI DIAZ (Itinerarios Ecológicos)<br>Dª. CARMEN ESTRADA (Itxas Argia)<br>D. KOLDO NABASKUES (Urkoa, Asociación de Consumidores)<br>D. PEDRO BARRENETXEA (Profesor del Instituto de Aixerrota)<br>D. JON GALLASTEGI (Fadura Institutoa)<br>D. JOSÉ ALMEIDA (Getxo Empresarial y Comercial). |
| -n 2005eko azaroaren 16an. Egun bereko arratsaldeko zapietan bildu zen Getxoko Tokiko Ingurumen-Foroa, eta bertan egon ziren arestian izendatutakoak. | En a 16 de noviembre de 2005. Se reunió a las diecinueve de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados. |
| Gai-zerrenda eztabaidatu ondoren, hona hemen lortutako emaitza: | Se abordó el Orden del Día, con el siguiente resultado: |
| **GAI-ZERRENDA** | **ORDEN DEL DÍA** |
| **1.** 2005eko urriaren 26an izandako Tokiko Ingurumeneko Foroaren batzarrari dagokion Akta onartzea. | **1.** Aprobación del Acta de la reunión del Foro Local de Medio Ambiente celebrada el día 26 de octubre de 2005. |
| Akta beren beregi onartu baino lehen, aurreko | Antes de dar paso a la aprobación del acta |

bilerara etortzerik izan ez zuen Jose Almeida jaunak aipatu zuen bere ustetan 2005eko urriaren 26ko aktan jasotakoak duen garrantzia zera dioenean: "hiria eraiki behar da"; bere ustez beharrezkoa da asmo hori benetan betetzea oraindik egiteke dauden urbanizazioetan. "Merkataritza dagoen lekuan bizitza dagoela" esan ohi da. Udalen politikek zuzeneko eragina dute hori horrela izan dadin, eta Getxoren kasuan, bere iritziz, egindako udal-politikak ez omen du horretan lagundu.

como tal, el Sr. José Almeida que no pudo acudir a la última reunión comenta la importancia que a su juicio tiene lo que pone en el acta del foro del día 26 de octubre de 2005 cuando se dice que "hay que construir ciudad", y señala la necesidad de que se cumpla tal cuestión en las nuevas urbanizaciones. Se dice que "Donde hay comercio hay vida " y las políticas municipales inciden de manera muy directa en que esto sea verdad, y en Getxo, entiende que, la política municipal no ha contribuido a ello.

Ondoren, aho batez eta inolako aldaketarik gabe onartu zen 2005eko urriaren 26an izandako bilkurari dagokion akta.

Posteriormente, fue aprobada por unanimidad sin modificaciones el acta correspondiente a la sesión celebrada el día 26 de octubre de 2005.

**2.** "HIRI-HONDAKINEN BIRZIKLATZEA BULTZATU ETA SUSTATZEKO" 6.LINEA ESTRATEGIKOAN jasotako ekintzen idazketa berrikustea edo/eta onartzea Foroaren aldetik.

**2.** Revisión y/o aprobación por parte del conjunto del Foro de la redacción de las acciones recogidas en la LÍNEA ESTRATEGICA 6 "IMPULSAR Y FOMENTAR EL RECICLAJE DE RESIDUOS URBANOS".

Patxi Diaz jaunak parte hartu eta urriaren 26ko aurreko foroan egindako proposamena azaldu du. Honen arabera, 6. Linea Estrategikoan programa berri bat gehitzea planteatu du honako izenburuarekin: "6.1. Hiri-hondakinak urritu, gaika bildu eta birziklatzeko programa". Hona hemen programa hori garatzeko ekintzak:
- Etxebizitza arruntetako zein industrietako hondakin organikoen gaikako bilketa ezartzea.
- Hiri-hondakin organikoak tratatu ahal izateko konpostaje edota biometanizazio planta bat sortzearen inguruko aukera aztertzea.
- Araudia behar bezala garatzea, Getxon etorkizunean eraikiko den eraikuntza orok gela komun bat izan dezan etxebizitzetako hondakinak behar bezala bildu ahal izateko ontziak edukiko dituena.

Interviene el Sr. Patxi Díaz explicando la propuesta planteada en el pasado foro celebrado el 26 de octubre, y haciendo un planteamiento de añadir en la Línea Estratégica 6 un nuevo programa titulado "P. 6.1 Programa de reducción, recogida selectiva y reciclaje de residuos urbanos" con las siguientes acciones:
- Implantar la recogida selectiva de la fracción orgánica de los residuos domiciliarios (RD) y de los residuos industriales (RICIA).
- Estudiar la creación de una planta de compostaje o biometanización para el tratamiento de la fracción orgánica de los residuos urbanos.
- Desarrollar la normativa para que todas las futuras viviendas verticales que se construyan en Getxo dispongan de un cuarto común destinado a recipientes de almacenaje de residuos domiciliarios.

Era berean, honako proposamena luzatu dio Foroari:

Así mismo, hace la siguiente propuesta al Foro:

"Getxoko hondakindegia berehala itxiko

"El Foro Local de Medio Ambiente de Getxo,

dutenez, Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroak Udalari jakinarazi nahi dio, modu aktibo zein pasiboan Getxoko hiri-hondakinak Zabalgarbiko erraustegian deuseztatzea ahalbideratuko duen edozein erabakiren aurka gaudela".

Lino Astobieta jaunak material batzuk banatu dizkie bertan daudenei, besteak beste, Ezker Batua taldearen bitartez Udalbatzan aurkeztuko den Hiri Hondakinen (HH) kudeaketari buruzko mozio bat, Ekologistak Martxan HHen tratamenduaren inguruan egindako Proposamenen Dekalogoa, eta bestelako materialak. Egiten den proposamenaren arabera, funtsean, errausketa ez da irtenbiderik egokiena, eta badaude ingurumenarentzat nahiz gizakien osasunarentzat horren kaltegarriak ez diren gainerako irtenbideak ere.

Jon Gallastegi jaunak esan duenez "konformatuko nintzateke Getxoko Udalak hondakinak Zabalgarbira ez eramateko erabakia hartzearekin; izan ere, eta antza denez, bada horren inguruan aurreko esperientziarik. Hondakinak aipatu plantara eraman aurretik Udalak beste alternatiba batzuk aztertu behar lituzke", erabaki hori etenda utziaz; azken hori burutzeko konpromiso soilarekin konforme legoke.
Bere ustez, beti jokatzen da indarrean dagoen politikaren bidez, gainerakoak kontuan hartu gabe, alegia; eta gaur egun politika hori errausketaren aldekoa da.

Koldo Nabaskues jaunak, aurreko iritziari eutsiaz gain informazio gehiago eskatzen dio Udalari hondakinen kudeaketa-politikaren inguruan; horrez gain, Patxi Diaz jaunak emandako zerrendan ekintza bat gehitzea proposatu du, hala nola, heziketa, sentsibilizazio nahiz kontzientziazio ekintzak abian jartzea populazio-sektore guztietan, hiri-hondakin gutxiago sortzeko beharrizanaz jabetzeko, alegia (itzultzeko ontziak, erosketa-karroa erabiltzea, etab). Eskatu du:
- mundu zabalean izandako esperientzia on zein txarren zerrenda bat, aldeko zein kontrako elementuak jasotzen dituena.

ante el inminente cierre del vertedero de Getxo, desea hacer saber al ayuntamiento de Getxo que estamos en contra de cualquier decisión que, de manera activa o pasiva, permita que los residuos urbanos de Getxo sean eliminados en la planta de incineración de Zabalgarbi".

El Sr. Lino Astobieta reparte una serie de materiales a los asistentes, así como una moción a presentar al Pleno municipal a través del grupo de Ezker Batua relativa a la gestión de RU, un Decálogo de Propuestas de Ekologistak Martxan sobre el tratamiento de los RU, y otros materiales. Plantea básicamente que la incineración no es la solución y que hay otras alternativas mucho menos impactantes en el medio ambiente y en la salud de los seres vivos.

El Sr. Jon Gallastegi dice que "me conformaría con el Ayuntamiento de Getxo se decidiera por no llevar los residuos a Zabalgarbi, ya que por lo visto hay otras experiencias. Antes de llevar los residuos a dicha planta, el ayuntamiento debería estudiar otras alternativas", dejando en suspenso esa decisión; se conformaría con el compromiso de llevarlo a cabo.
A su entender siempre se va con la política dominante, sin tener en cuenta las demás; y hoy en día ésa es incinerar.

El Sr. Koldo Nabaskues abunda en este tipo de cuestiones y además pide al Ayuntamiento más información sobre la política de gestión de residuos y propone también una acción más a añadir a las planteadas por el Sr. Patxi Díaz consistente en poner en marcha acciones formativas, de sensibilización y concienciación dirigidas hacia todos los sectores de la población acerca de la necesidad de reducción en la generación de residuos urbanos (envases retornables, utilización del carro de la compra, etc. Solicita:
- una relación de las experiencias en el mundo, tanto las buenas como las malas, con sus pros y sus contras.
- Se presenten opciones concretas (globales, locales, personales...)

- Aukera zehatzak aurkez daitezela (orokorrak, tokikoak, pertsonalak...)
- Ea alternatiba hauek nolako eragina duten ekonomikoki, epeka burutu daitezkeen ala ez...

Patxi Diaz jaunak berriro ere parte hartu du, eztabaida kokatu beharra dagoela esanez; zentzu honetan, esan nahi du, hondakinen tratamendua eta eskura dauden erabilera-baliabideak elkarrekin lotuta joan behar direla.

GETXOKO HONDAKINEN TRATAMENDUAREN INGURUKO EZTABAIDA ENMARKATZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO PREMISAK

- Ingurumeneko foroa 21 Agendaren baitan dago kokatuta eta garapen iraunkorra ahalbideratzen dituzten tokiko politikak sustatzea du helburu.
- Garapen iraunkorra, planetako egungo biztanleekiko nahiz etorkizuneko belaunaldiekiko baliabide naturalen erabilera solidarioa egiten duen garapena da..
- Hiritarren sortutako hondakinen tratamendua bat etorri behar da baliabide naturalen erabilerarekin. Hondakinak dira, kontsumitzeko erabiltzen ditugun gainerako produktuetatik baztertzen ditugunak, nahiz eta modu egokian erabiliaz gero lehengai gisa har genitzakeen. Ondorengo eskeman oinarritutako eredu linealak saihestu behar ditugu:

baliabide naturalak
kontsumitu ____ baztertu

eta materiak zirkulatu egiten duen beste batzuengatik ordezkatu; prozesu batzuetan hondakinak izan arren, beste batzuetan lehengaien iturri dira:

Kontsumoa

Lehengaia Hondakina

Garapen iraunkorra sustatzeko estrategietako

- Estas alternativas qué representan desde el punto de vista económico, posibilidades de plazos...

El Sr. Patxi Díaz vuelve a intervenir planteando la necesidad de enmarcar el debate, y en este sentido viene a decir que el tratamiento de los residuos no se puede separar del uso de los recursos.

PREMISAS A TENER EN CUENTA PARA ENMARCAR EL DEBATE SOCRE EL TRATAMIENTO DE RESIDUOS EN GETXO

- El foro de medio ambiente se encuadra dentro de la Agenda 21 y se reúne para fomentar políticas locales que permitan un desarrollo sostenible.
- Desarrollo sostenible es aquél que hace un uso de los recursos naturales solidario respecto a los actuales habitantes del planeta y solidario con las generaciones futuras.
- La generación y tratamiento de los residuos por parte de los ciudadanos no debe separarse del uso que hacemos de losa recursos naturales. Hablamos de residuos cuando procedemos a la eliminación de los de los restos de los productos de consumo, aunque utilizados correctamente podrían ser considerados como materia prima. Debemos evitar modelos lineales basados en el siguiente esquema:

recursos naturales ——▶
consumo ____ eliminación

y sustituirlos por otro en el que la materia circule; lo que para unos procesos son residuos , para otros son fuente de materia:

Consumo

Materia prima Residuo

Una de las estrategias para fomentar el desarrollo sostenible es la educación

bat ingurumenaren gaineko hezkuntza da. Modu honetara defini dezakegu: etenik gabeko prozesua non gizabanakoek nahiz kolektibitateak ingurunearen gaineko kontzientzia hartu eta ingurumenaren egungo zein etorkizuneko arazoak ebazteko ezagupen, balore, eskumen eta borondatea eskuratzen duten. Hiri-hondakinen sortze nahiz tratamendua horietako bat da; hori horrela, hondakinen gaineko tokiko edozein politika hiritarrak gai horren inguruan kontzientzia har dezaten oinarritu behar da, bai eta berauen kudeaketa egokia nola egin bereganatzeko moduan ere.

ambiental. Podemos definirla como el proceso continuo en el que los individuos y la colectividad toman conciencia de su medio y adquieren los conocimientos, los valores, las competencias y la voluntad para hacerles capaces de actuar en la resolución de problemas actuales y futuros del medio ambiente. La generación y el tratamiento de los residuos urbanos es uno de ellos y cualquier política local sobre residuos debe estar basada en que los ciudadanos tomen conciencia del problema y asuman la que les corresponde en la correcta gestión de los mismos.

Bestalde, hondakinak sortu eta kudeatzeko orduan hiritarrak hezteak duen garrantzia aipatzeaz gain adierazi du, jadanik Batzar Nagusiek onartutako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Aldundiaren 2005-2016 Planak ez duela horren inguruko aipamenik egiten. Plan horren aurka ere hitz gogorrak erabili ditu, izan ere, bere ustez gauzak nahasteaz gain gezurrak ere esaten ditu baten baino gehiagotan. Plan horretan ere ez da inolako konparaketa analisirik egiten Hiri-hondakinen tratamendu anitzen artean, ez ekonomia, ez ingurumen ez eta gizarte mailan ere.Lehenengo irtenbidea bilatu da, eta ondoren egin da txosten guztia, aurretiaz erabakitako irtenbide horretara heldu ahal izateko.

Por otra parte, señala la importancia de educar a la ciudadanía en la generación y gestión de los residuos y comenta que el Plan de Gestión de los RU de la Diputación, 2005-2016, aprobado ya por las JJ.GG., no hace ninguna mención a ello. También tiene duras palabras y calificativos para dicho plan, que según él tergiversa y miente en repetidas ocasiones. En dicho plan, tampoco hay análisis comparativos entre los diversos tratamientos de los RU a nivel económico, medioambiental y social..
Primero se ha dado la solución y después se ha elaborado todo el informe, para llegar a esa solución previamente decidida.

Dimas Ramos jaunak parte hartu du, esanez, Patxi Diazek esandako gehientsuenarekin ados dagoela; hala ere, azpimarratu duenez, gauza ez da hain erraza eta beharrezkoa da hiritarrak gehiago heztea.
"Ezerezetik" "guztira" pasatu nahi dugu, baina horretarako, herria mentalizatu, informatu eta hezi egin behar da lehendabizi.

El Sr. Dimas Ramos interviene diciendo que está básicamente de acuerdo con lo manifestado por Patxi Díaz, aunque resalta que la cosa no es fácil y que es necesario educar mucho más al pueblo.
Queremos pasar del "nada" al "todo" y primero hay que mentalizar al pueblo, informarle y educarle.

Jon Gallastegik behin eta berriz dio argi eduki behar dela zer den, eta behin ideia hori finkatu ostean, berori lortzeko behar diren neurriak bilatu behar direla. Birziklatzea da ideia, eta hori lortzeko bideak bilatu behar dira.

Jon Gallastegi insiste en que primero hay que tener clara la idea de lo que se quiere y a partir de la idea buscar los medios para conseguirlo.
La idea es que hay que reciclar, y vamos a buscar los medios

Pedro Barrenetxea jauna ados agertu da Diaz jaunak adierazitakoarekin, nahiz eta ezkorra

El Sr. Pedro Barrenetxea señala que está de acuerdo con lo planteado por el Sr. Díaz,

den urritze neurriei dagokienez; izan ere gaur egun negozio borobila baita Hiri-hondakinen birziklatzea. Hala ere, zehaztu nahi du, ez dagoela HHen sortzean urritze-ekintzen aurka.

aunque es pesimista en cuando a las medidas de reducción, ya que hoy en día es un negocio el reciclaje de los RU. De todas formas, matiza que no se opone a las acciones de reducción en la generación de los RU.

Jose Almeida jaunak proposatu du garrantzizkoa dela ahalik eta erraztasun gehienak jartzea HHak gaika biltzerakoan, bai etxebizitzetan, bai komertzioetan bai zerbitzuetan. Hau horrela izan ezean, parte hartzea eta lankidetza ez dira horren oparoak izango. Indarrez ezarri beharrean, sektore guztien laguntzarekin aho batekotasuna lortu behar da.

El Sr. José Almeida plantea que de cara a las recogidas selectivas de los RU tanto a nivel domiciliario como de comercios y servicios es importante poner las máximas facilidades. De lo contrario, la participación y colaboración no será tan fructífera. En lugar de imponer hay que contar con todos los sectores y consensuar; no se puede imponer sin contar con ellos.

Ekologistak Martxan taldeko Begoña andreak adierazi du, Garapen Iraunkorra eta Tokiko 21 Agendaz ari baldin bagara, hondakinen arazoari aurre egiterakoan ezin diogula soilik alde ekonomikoari so egin behar baizik eta baita Garapen Iraunkorraren beste zutabeei ere: sozial eta ingurumenari. Bere esanetan bada errausketa baino hobea den beste irtenbiderik, eta ez dira aintzat hartu; Udalei dagokie hondakinak kudeatzeko orduan egun dauden alternatibak aztertzea.

La Sra. Begoña de Ekologistak Martxan plantea que si estamos hablando del Desarrollo Sostenible y de la Agenda Local 21, a la hora de abordar la problemática de los residuos no se puede tener en cuenta sólo el aspecto económico sino también los otros dos pilares del Desarrollo Sostenible: el social y el medioambiental. Señala también que hay otras alternativas mucho mejores a la incineración, y no se están teniendo en cuenta; es tarea de los Ayuntamientos analizar las alternativas que existen al día de hoy a la gestión de residuos.

Carmen Estrada andreak parte hartu du, esanez, bera ere nahiko ezkorra dela hondakinen urritze-neurrien emaitzei dagokienez. Adierazitako ideiak ontzat jo arren, ez ditu modu errealean ikusten; hezkuntza gehiago behar da.

La Sra. Carmen Estrada interviene diciendo que también ella es bastante excéptica en cuanto a los resultados de las medidas de reducción.;La ideas expresadas le parecen bien pero no las ve reales, se necesita mayor educación.

Mahaiak Foroari proposatu dio Ingurumen Sailak 6.Linea Estrategikoaren idazketa berria egin dezala, hurrengo Foroaren bileran onartu edota berretsi ahal izateko; eta Patxi Diaz jaunak proposaturikoari dagokionez, hau da, Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroak Udalari jakinarazten diola modu aktibo zein pasiboan Getxoko hiri-hondakinak Zabalgarbiko erraustegian deuseztatzea ahalbideratuko duen edozein erabakiren aurka dagoela, Foroan ordezkaturik dauden talde eta erakunde desberdinek arazoa beraien kabuz eztabaidatu eta horren inguruko iritzia hurrengo bileran

Desde la mesa, se propone al Foro que el Area de Medio Ambiente hará una nueva redacción de la Línea Estratégica 6 para que se someta a su aprobación y/o validación en el próximo Foro, y en cuanto a la propuesta de posicionamiento planteada por el Sr. Patxi Díaz de que el Foro haga saber al ayuntamiento de Getxo de que está en contra de cualquier decisión que, de manera activa o pasiva, permita que los residuos urbanos de Getxo sean eliminados en la planta de Zabalgarbi, se discuta en los diversos colectivos y organismos representados en el

azal dezatela. Bai bata bai bestea aho batez onartu dira.

Foro y que se traigan a la próxima reunión sus posicionamientos. Se acuerda por unanimidad ambas cuestiones.

Hona hemen Ingurumen Sailak Hondakinei buruz proposatzen duen 6. Linea Estrategikoaren idazpen berria:

La nueva redacción que se propone por parte del Area de Medio Ambiente de la Línea Estratégica 6 relativa a los Residuos es la siguiente:

**"HIRI-HONDAKINEN URRITZEA ZEIN BIRZIKLATZEA BULTZATU ETA SUSTATZEKO" 6.LINEA ESTRATEGIKOA**

**LÍNEA ESTRATÉGICA 6 "IMPULSAR Y FOMENTAR LA REDUCCIÓN Y REECICLAJE DE LOS RESIDUOS URBANOS"**

**6.1.P Hiri-hondakinak urritu, gaika bildu eta birziklatzeko programa.**

6.1.1. Etxebizitza arruntetako zein industria, komertzio nahiz erakundeetako hondakin organikoen gaikako bilketa ezartzea.

6.1.2. Hiri-hondakin organikoak tratatu ahal izateko konpostaje edota biometanizazio planta bat sortzearen inguruko aukera aztertzea..

6.1.3. Araudia behar bezala garatzea, Getxon etorkizunean eraikiko den eraikuntza orok gela komun bat izan dezan etxebizitzetako hondakinak behar bezala bildu ahal izateko ontziak edukiko dituena.

6.1.4. Biztanleria guztiari zuzenduriko heziketa, kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea etengabe, Hiri-hondakinak sortzeko unean urritzea gerta dadin.

**6.2.P. Hiri-hondakinak gaika bildu eta birziklatzeko programa**

6.2.1 Biztanle kopuruaren arabera gaikako bilketarako edukiontziak ezartzea, ezarrita dauden ratioak errespetatuz; modu honetara, beraien eraginkortasun nahiz etekina hobetuko dira.

6.2.2. Etxeko gauza nahiz gauza handien berreskuratze, berrerabiltze eta

**P 6.1. Programa de reducción, recogida selectiva y reciclaje de residuos urbanos**

6.1.1 Implantar la recogida selectiva de la fracción orgánica de los residuos domiciliarios (RD) y de los residuos industriales, comerciales e institucionales (RICIA)

6.1.2. Estudiar la creación de una planta de compostaje o biometanización para el tratamiento de la fracción orgánica de los RU

6.1.3. Desarrollar la normativa necesaria para que todas las futuras viviendas verticales que se construyan en Getxo dispongan de un cuarto común destinado a recipientes de almacenaje de residuos domiciliarios.

6.1.4. Realizar campañas de forma permanente de formación, concienciación y sensibilización dirigidas a todos los sectores de la población de cara a avanzar en la reducción en la generación de los RU.

**P 6.2. Programa de recogida selectiva y reciclaje de residuos urbanos**

6.2.1 Cumplir con los ratios establecidos de instalación de contenedores de recogida selectiva por número de habitantes, para mejorar su eficacia y rendimiento.

6.2.2. Establecer la recuperación, reutilización y reciclaje de enseres y voluminosos

birziklatzea ezartzea 2005 urterako.

6.2.3. Hondakin berdeak berariaz bildu eta norbanakoei inausketak egiteko zerbitzua ezartzea.

6.2.4. Arropa biltzeko sistema finkatu eta hedatzea, bai eta 2007 urterako bilketa-puntuen zenbatekoa bikoiztea ere.

6.2.5. Hondakin toxikoak, etxeko hondakinak eta gainerako hondakinak bilduko dituen udal birziklatze-zentro bat sortzea, Aldundiaren Garbiguneak ematen duen eskaintza zabalduaz.

**6.3.P. Jatorri industrialeko hondakin arriskutsuak kontrolatzeko udalaren programa**

6.3.1. IHOBErekin lankidetzan aritu tailer eta gainerako jardunetan Ekoizpen Garbia lortzeko programa eta praktikak hedatu eta ezartzeko unean.

**3.** "UDALERRIAREN HOBEKUNTZA URBANISTIKOA SUSTATZEKO" 3.LINEA ESTRATEGIKOAN jasotako Ekintzak eztabaidatzea edo/eta onartzea Foroaren aldetik.

Denborarik ez dagoela-eta puntu hau Foroaren hurrengo bileran eztabaidatzeko utzi da.

Azkenik, 21:30 direla, bilera bukatutzat eman da.

y reciclaje de enseres y voluminosos para 2005.

6.2.3 Implantar un servicio de recogida específica de residuos verdes y de poda de particulares

6.2.4. Consolidar y extender el sistema de recogida textil, así como duplicar para 2007 el número de puntos de recogida.

6.2.5. Creación de un centro de reciclaje municipal donde se recojan residuos tóxicos, domésticos y otros tipo de residuos, ampliando la oferta del Garbigune de la Diputación.

**P 6.3. Programa de control municipal de residuos peligrosos de origen industrial**

6.3.1 Colaborar con IHOBE en la difusión y aplicación de programas y prácticas de Producción Limpia en talleres y otras actividades.

**3.** Discusión y/o aprobación por parte del conjunto del Foro de las Acciones de la LÍNEA ESTRATÉGICA 3 "PROMOVER LA MEJORA URBANÍSTICA DEL MUNICIPIO".

Por falta de tiempo, se dejó este punto para la próxima reunión del Foro.

Finalmente, se dio por concluida la reunión a las 21:30 horas.